



2023KO “EUROESKUALDEKO BERRIKUNTZA” PROIEKTU-DEIALDIA

MEG

| | | |
|----|--|---|
| 01 | LANKIDETZAK | 1 |
| 02 | EGUTEGIA | 2 |
| 03 | PRESTAKETA | 3 |
| 04 | KOMUNIKAZIOA | 3 |
| 05 | AURREKONTUA | 4 |
| 06 | HAUTAGARRITASUNA ETA SEKTORE ESTRATEGIKOAK | 5 |

01 | LANKIDETZAK

- **Proiektuan parte har al dezake Euroeskualdeko lurraldetik kanpoko kiderik, tokiko hiru bazkideez gain?**

Euroeskualdeko lurraldetik kanpo dauden lurraldeetako kideek elkarteko kide asoziatu gisa parte hartu ahal izango dute, baina ezingo dira dirulaguntzaren onuradun izan.

- **Unibertsitateek parte har al dezakete?**

Bai.

- **Langile autonomoek proiektuan parte har al dezakete?**

Langile autonomoek eta freelancek ezingo dute proiektuan parte hartu.

- **Elkarteeak proiektuan parte har al dezakete?**

Bai.





- **Hiru lurraldeetako bazkideak gara eta proiektuko ekintza bat edo guztiak Euroeskualdeko lurralde geografikotik kanpo egin nahi ditugu. Hautagarri al gara?**

Bai, baina kontuz proiektuaren egokitasunarekin eta Euroeskualdeari ematen dion balio erantsiarekin.

- **Bazkide batek hainbat proiektutan parte har al dezake?**

Bai, posible da. Hala ere, Euroeskualdea ahalik eta eragile gehien finantzatzeko ahalegintzen da.

02 | EGUTEGIA

- **Zein da proiektu-deialdira aurkezteko prozedura?**

Proiektu-deialdiaren orrian adierazitako dokumentu guztiak bete behar dira: <https://www.euroregion-naen.eu/eu/>. Proiektuaren fitxa Euroeskualdeko hiru lan-hizkuntzetan bete behar da. Eskabidea amaitzeko, formularioa ere bete beharko da.

- **Proiektu-buruak aurtengo proiektu-deialdirako garaiz iristen ez badira, datorren urtean aurkeztu al daitezke?**

Bai, urteroko proiektu-deialdia da. Gutxi gorabehera, data berean programatuko da datorren urtean.

Gogoratzekoa: osatu gabeko eskaerek (adibidez, hizkuntza bakarrean aurkeztuak eta itzuli gabeak) 7 eguneko epea izango dute, jakinarazpena egiten den egunetik hasita, eskabidea osatu ahal izateko.

- **Zenbat irauten du justifikazioaren berrikusketak, jakinarazpenak eta ordainketak?**

Epea jasotako proiektu kopuruaren arabera da, baina lehenbailehen gauzatzeko ahaleginak egiten dira. Ordainketari dagokionez, Frantziako Altxor Publikoari dagokio exekuzioa. Beraz, arau desberdin horietara egokitu behar da Euroeskualdea bera.

- **Proiektuak finantzaketa lortzen badu, zein egunetan abiaraztea gomendatzen da?**

Hautatutako proiektuak abenduaren erdialdean argitaratzen direnez, proiektua 2024ko urtarrilean martxan jartzea gomendatzen da. Kontuan izan hautaketa-dataren ondorengoko gastuak baino ez direla diruz lagunduko.



- **Gure proiektuak 18 hilabete iraun beharko al du?**

Ez, gehieneko iraupena 18 hilabetekoa da, baina proiektua laburragoa izan daiteke. Gainera, proiektuaren amaieran luzapena behar badu, akordioari eranskin gehigarria egin dakioke.

03 | PRESTAKETA

- **Posible al da proiektuetako kudeatzaileek hitzordua eskatzea beren proiektua aurkezteko?**

Bai, Euroeskualdera aurkeztea aholkatzen da.

- **Euroeskualdeak lagundu al dezake eskaera-espeditenteen itzulpena egiten?**

Euroeskualdeak ezin ditu hautagaitza faseko proiektuen hizkuntza-itzulpenak beregain hartu. Nolanahi ere, proiektuak iraun bitartean egiten diren itzulpenak bukaeran diruz lagundu ahal izango ditu Euroeskualdeak.

- **Bazkide baten bila bazabiltza, nola jakinarazi?**

Baliteke Euroeskualdeak laguntzea kide ezberdinak harremanetan jartzen, hala nahi badute eta falta diren bazkideak aurkitzeko zailtasunak badituzte. Hala ere, beren proiektuaz eta bazkide izango den horiez ideia zehatz bat izan beharko dute. Euroeskualdeko kide diren gobernuetako kanpo harremanetarako sailek ere lagundu dezakete zeregin horretan.

- **Ba al dago ideiak proposatzeko eta bazkideak bilatzeko Euroeskualde mailako online plataformarik?**

Oraindik ez, baina Euroeskualdeak etorkizunean ezarri nahi duen zerbitzua da.

04 | KOMUNIKAZIOA

- **Euroeskualdeak komunikazio-tresna analogikoak (digitalak ez direnak) ezar al ditzake?**

Euroeskualdeak bere komunikazio-tresnak ditu, baina proiektuko kideek eurenak jarri beharko dituzte martxan, kakemonoak edo bestelakoak.



05 | AURREKONTUA

- **Azaldu diezagukezu berriro nola funtzionatzen duen dirulaguntzak? Gehienez 75.000 euro, % 50eko finantzaketa...**

Proiektu-deialdiaren baitan Akitania Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdeak emandako dirulaguntzen gehiengo zenbatekoa proiektuko kostu osoaren % 50era irits daiteke, gehienez ere aurkeztutako proiektu bakoitzeko 75.000 euroko dirulaguntza izateraino. Proiektuaren kostu osoaren % 20, gutxienez, autofinantzatua izan beharko da. Zenbatekoa bi epetan ordainduko da: % 40, hasierako ekarpena, hitzarmena sinatzean, eta gainerako % 60a, proiektuaren amaieran.

- **Autofinantzaketaren ehunekoa % 20 izateak proiektua kanpoko diru-iturrien ehunekoa % 100ekoa ezin izatea al dakar?**

Bai, proiektuaren kostu osoaren % 80 baino ezin izango da kanpoko diru-iturri bidez finantzatu; gainerako % 20 bazkideen diruzaintzatik bertatik eratorria izan behar da.

- **Nola osatu Estatuko minimis laguntzei buruzko erantzukizunpeko adierazpena?**

2013/1407 (EB) Erregelamenduaren arabera, agintaritza publikoen minimis laguntzak jasotzen dituzten konpainia bakoitzak 200.000 euro arteko dirulaguntzak jasotzeko baimena dute 3 ekitaldi fiskaletan, adierazpena sinatzen den ekitaldian egiten dena barne. Baldintza horiek betetzen direla bermatzeko, etorkizunean minimis laguntzak jasotzen dituzten edo jasoko dituzten bazkideek Euroeskualdeari jakinarazi behar diote erantzukizunpeko adierazpen baten bidez. Euroeskualdeak erantzukizunpeko adierazpen horren eredu-formulario bat eskainiko du azken 3 ekitaldietarako, gehienez ere 200.000 euroko laguntza adierazi bide duena.

Adierazpen horrek ez badio kideetakoren bati eragiten, inoiz ez duelako erakunde publikoengandik dirulaguntzarik sekula jaso ez duelako, kide horrek ez du erantzukizunpeko adierazpena bete behar.

- **Aurrekontua orekatua izan behar al da hiru bazkideen artean?**

Ez, ez da derrigorrezkoa. Aurrekontua bazkide bakoitzaren partaidetzaren arabera bana daiteke. Kontuz ibili behar da, hala ere, bazkideetako batek ere ez dezan neurritz kanpoko partaidetzarik izan.

- **Osasun ekipoetan inbertitu behar dugu gure proiektua osatzeko. Diruz lagundu al daitezke gastu horiek?**



Bai, unitateko 500 euroko mugaraino (ez zenbateko osoari dagokionez). Ekipo espezifikoetan egindako inbertsioak kopuru hori gainditzen badu, aurrekontuan sar daiteke, inbertsio hori proiektuaren funtzionamendu egokirako zergatik den beharrezkoa zehazki azalduz.

▪ **Bazkide guztiek parte hartu behar al dute autofinantzaketan?**

Bai, era batera edo bestera, nahiz eta aurrekontu globala izan.

▪ **Kontulariaren gastuak barne hartzen al dira?**

Ez. Proiektuarekin zuzen-zuzenean lotutako gastuak baino ez dira aintzat hartu eta ordainduko.

▪ **Zerbitzu juridikoekin lotutako gastuak (oinarri juridikoak idaztea) barne hartzen al dira?**

Proiektuaren edukirako kanpo-zerbitzuak badira, kostu hori diruz lagundu daiteke. Horretarako, bazkideetako bati faktura bat aurkeztu beharko zaio.

▪ **Eskudirutan egindako gastuak sartuta al daude?**

Bai, betiere egiaztagiriak aurkezten baldin badira.

▪ **Gida didaktikoen itzulpena diruz lagundu daitekeen gastutzat har daiteke?**

Bai.

06 | HAUTAGARRITASUNA ETA SEKTORE ESTRATEGIKOAK

▪ **Hauta al daitezke ikerketa-proiektuak?**

Bai. Hala ere, ikerketaren gaia proiektu-deialdiko gaietako batekin lotuta egon behar da.

▪ **Proiektu-deialdi honetako gaietan sar al daitezke mahastien (mahastizaintza) eta, zehazkiago, mahasti-birusen esparruko ikerketa-gaiak?**

Bai, Euroeskualdeak nekazaritzarekin lotutako proiektuak ere finantzatzen ditu.





- **Zein proiektu sar litezke "Biozientziak, Osasuna eta Zilar Ekonomia" sektore estrategikoetan?**

Hona adibideen zerrenda ez zehatza: zahartze aktiboko proiektuak, gaixotasun kronikoen tratamendua, datuen elkartrukea, ikerketaren atariko faseak (endekapenezko gaixotasunak, adibidez), biobankuak.

- **"Nekazaritza eta nekazaritzako elikagaien industria" sektore estrategikoak argitu ditzakezu?**

Tokiko produktuak, jaki osasuntsuak eta pertsonalizatuak, balio-katea, teknologien integrazioa, eta ekoizpen ekologikoa nabarmendu behar dira.

- **Diruz lagundu al daiteke ingurumen-datuak tratatzeko softwarea garatzeko proiektu bat?**

Printzipioz, bai.

- **Deialdi honek finantzatu al dezake Euroeskualdeko berrikuntzei buruzko ekitaldi bat, bazkideek elkar hobeto ezagutu ahal izateko, eta, ondoren, Europar Batasuneko beste deialdi batzuei erantzutea xede, partzuergo bat garatu ahal izateko?**

Teorian, ez. Ekitaldietan bakarrik parte hartzea ezin da diruz lagundu, ezta beste proiektu deialdi batzuetan parte hartzeko sareak sortzea ere.

- **Bideragarritasun-plan bat diruz lagundu al daiteke?**

Ez.

- **Ingurumen-azterlanak ez al dira sektore estrategikoen parte?**

Ez, ingurumen-azterlanak ez dira sektore estrategikoen parte. Hasiera batean, azterlanak ez dira diruz laguntzeko modukoak, etxebizitza iraunkorreko proiektuen parte ez badira.

- **Zer ingurumen-proiektu mota dira diruz laguntzeko modukoak?**

Adibidez, etxebizitza iraunkorra, baso eta oihanen babesa, energia berriztagarriak.

- **Diruz lagundu al daitezke aurreko europar proiektuetan burutu ezin izan genituen ekintzak?**

Zonarekiko izango lituzketen ekintzen eta interesaren arabera izango da.

